



Eibar Argipean

Castrillo Ortuoste Fondoa



Cien años de fotografía

Eibar Argipean

Eibarko Udala - *Ayuntamiento de Eibar*

Ego Ibarra Batzordea - *Comisión Ego Ibarra*

Udal Artxiboa - *Archivo Municipal*

Eibar Argipean

Castrillo Ortuoste Fondoa

Cien años de fotografía

Eskubide guztiak gordeta daude. Liburu hau eta bertako argazki bat bera ere ezin da inon berragertu, ez zatika, ez osorik. Liburu hau ezin da inon erregistratu eta bertan agertzen diren agiri grafikoak zein idatzizkoak ezin dira informazioa batzeko sistema batean jaso; inongo modutan eta inongo formatan. Hori egin nahi duenak, derrigorrezkoa du Eibarko Udalaren baimen idatzia eskuetan izatea.

Todos los derechos reservados. Esta publicación y los documentos gráficos o fotografías contenidas en la misma, no pueden ser reproducidos, ni en todo ni en parte, ni registrados en, o transmitidos por un sistema de recuperación de información, en ninguna forma ni por ningún medio, sin el permiso previo escrito del Ayuntamiento de Eibar.

Ego Ibarra Batzordea - Comisión Ego Ibarra

Batzorde-burua / *Presidenta*:

Dña. Nerea Alustiza Alonso andrea

Batzordekideak / *Vocales*:

Dña. Maria Jose Telleria Etxeberria andrea

Dña. Mercedes Garate Larrañaga andrea

Dña. Milagros Arizmendi Etxaniz andrea

Dña. Carmen Larrañaga Maiztegui andrea

Eibar Argipean - Castrillo Ortuoste Fondoa - Cien años de fotografía

Koordinatzailea / *Coordinadora*: Yolanda Ruiz Urbón, Udal artxibaria, *Archivera municipal*

Edizio paratzailea / *Editora*: Begoña Azpiri Eguren, Ego Ibarako Idazkaria, *Secretaria de la Comisión Egoibarra*

Hitzaurreak / *Prólogos*: Yolanda Ruiz Urbón, Castrillo Ortuoste Artxiboaren dohaintza: Irudiak ordenatzen, oroimena antolatzen

La donación de Feliciano Castrillo Ortuoste: Ordenar imágenes, organizar la memoria.

Mende osoa begien aurrean. *Las miradas de un siglo.*

José Valderrey de Lera, Beirazko plaketatik irudi digitaletara. Castrillo Ortuoste Fondoaren ibilbidea.

De las placas de vidrio a la imagen digital. El trayecto del Fondo Castrillo Ortuoste.

Atalburuen sarrerak / *Introducciones capitulares*: Yolanda Ruiz Urbón.

Testu historikoen aukeraketa / *Selección textos históricos*: Yolanda Ruiz Urbón, Begoña Azpiri Eguren

Argazkien aukeraketa eta argazki-oinena / *Selección de fotos y pies de fotos*: José Valderrey de Lera

Itzulpenak / *Traducción*: Begoña Azpiri Eguren, Eibarko Udala, *Ayuntamiento de Eibar*

Euskarazko testuen gainbegiratua / *Supervisión de textos en euskara*: Itziar Alberdi Bilbao, Asier Sarasua Aranberri

Inprimatzailea / *Imprime*: GANBOA Centro Gráfico

Diseinua eta maketazioa / *Diseño y maquetación*: AKT Comunicación

Caja Laboral-Euskadiko Kutxaren ordezkariak libururako / *Representantes de Caja Laboral-Euskadiko Kutxa para el libro*:

Ricardo Astigarraga Zabaleta, Eibarko sukurtsal-zuzendaria / *Director de sucursal en Eibar*

Amaia Amezua Etxaniz, Eibarko sukurtsal-zuzendaria / *Directora de sucursal en Eibar*

Azaleko argazkia: 1932ko irailaren 13a. Errepublikan Plaza (egun Untzaga Plaza) Niceto Alcalá Zamorak Eibarrera egin zuen bisitaldian.

Foto de portada: 13 de septiembre de 1932. La Plaza de la República (en la actualidad Plaza de Unzaga) durante la visita de Don Niceto Alcalá Zamora.

ISBN: 84-89696-35-7

L.G./D.L.: SS-1167/02

Aurkibidea • Índice

Orria • Pág.

Alkatearen aurkezpena <i>Presentación alcalde</i>	5
Euskadiko Kutzaren aurkezpena <i>Presentación Caja Laboral</i>	7
1997. Castrillo Ortuoste Artxiboaren dohaintza: Irudiak ordenatzen, oroimena antolatzen <i>1997. La donación del Archivo Castrillo Ortuoste: Ordenar imágenes, organizar la memoria</i>	9
Mende osoa begien aurrean. Yolanda Ruiz Urbón, Eibarko Udal Artxiboa <i>Las miradas de un siglo. Yolanda Ruiz Urbón, Archivo Municipal de Eibar</i>	13
Beirazko plaketatik irudi digitaletara. Castrillo Ortuoste Fondoaren ibilbidea. José Valderrey de Lera, Castrillo Ortuoste Fondoaren ikerlaria eta digitalizatailea <i>De las placas de vidrio a la imagen digital. El trayecto del Fondo Castrillo Ortuoste</i> <i>José Valderrey de Lera, investigador y digitalizador del Fondo</i>	25
I XIXtik XXrako bidezidorra. Argazkilaritzaren argi-urratuak Eibarren <i>El paso del siglo XIX al XX. Los albores de la fotografía en Eibar</i>	38
II 1931-1936. Errepublikako bizipoza • <i>La ilusión Republicana</i>	118
III 1936-1939. Gerratea • <i>La guerra</i>	148
IV 1940-1954. Gerra ostea. Eibar jasotzen • <i>Reconstrucción y posguerra</i>	158
V 1955-1972. Eibar, "Bilbo txikia" • <i>Eibar, la ciudad del dólar</i>	208
VI 1973-1994. Krisialdia eta estudioaren itxiera • <i>Crisis y cierre del estudio</i>	268
Eranskina: Fondoaren makrodeskripzioa <i>Anexo: Macrod descripción del Fondo</i>	278
Argazkien aurkibidea <i>Índice de fotografías</i>	283
Bibliografía eta iturriak <i>Bibliografía y fuentes consultadas</i>	295



Ertzak moztekoa, egurrezkoa.
Argazki-laboratorioan
erabiltzen zen.

*Marginador de madera utilizado en
el laboratorio fotográfico.*

Castrillo Ortuoste Fondoa.
Eibarko Udal Artxiboa.
Archivo Municipal de Eibar.
Fondo Castrillo Ortuoste

Eibarren, Ortuoste eta Castrillo abizenak, zeharo lotuta daude argazkilaritzaren munduarekin; XIX mendearen akabera aldean lanean hasi zen argazkilari-leinua dugu, 1994. urteraino horretan jardun duena. Ehun urte, euren lanbide eta zaletasun zen hartan buru-belarri sartuta: argazkilaritzan.

Eibarrek, Ortuoste Castrillo familiari esker, gure herriaren iragana eta oraina taxutzen utziko diguten agiriak dauzka une honetan, euren artxibo zoragarria udalaren esku utzi baitu –200.000, argazki eta negatibo baino gehiago, argazki-ekipoak eta materialak, denak balio historiko handikoak.

Eibarko herriaren bizimodu soziala, kulturala eta politikoaren iragana eta oraina, azken ehun urte hauetakoa; baita bertako hirigintzaren bilakabidea ere. Etengabe mugitzen dagoen herri bizi baten isla fidela.

Liburu hau argitara ematean herria bera da omendu nahi dena, herriko jendea, herria herri eredugarri egin duen jendea.

Artxibo aparta da Ortuoste Castrillo familiak gure esku utzi duena, herritar guztien esku sekulako erretratu eder mordoa utzi du; artxibo horrek mende osoan zehar familia hori murgildu zen mundu hartara gerturatzeko gaitu: argazkilaritzaren mundura.

Ortuoste Castrillo son apellidos que en Eibar aparecen indisolublemente ligados al mundo de la fotografía, una saga que se inicia a finales del siglo XIX y llega hasta el año 1994. Cien años dedicados a una profesión, a una pasión: la Fotografía.

Gracias a la donación del magnífico archivo de la familia al Ayuntamiento (más de 200.000 fotografías y negativos, además de equipos y materiales fotográficos de gran valor histórico), Eibar cuenta con unos documentos gráficos, que, en su conjunto, nos permiten dibujar el pasado y el presente de nuestra ciudad.

Pasado y presente de la vida social, cultural y política de Eibar en los últimos cien años, incluso aspectos de su evolución urbanística, que constituyen un fiel reflejo de una ciudad viva y en constante movimiento.

La publicación de este libro quiere ser un homenaje a la ciudad, un homenaje sincero a las gentes que han hecho de ella un ejemplo a seguir.

La familia Ortuoste Castrillo pone a disposición de la ciudadanía un abanico de extraordinarias imágenes y nos acerca a todos a un mundo que les atrapó durante un siglo: el Mundo de la Fotografía.



Iñaki Arriola López

Eibarko Alkateak
Alcalde de Eibar



KLAP tropical model kamera.
Alemanian H. Ernemann-ek
egindakoa (1904-1920).

Cámara Klap tropical model.
Fabricada en Alemania por
H. Ernemann (1904-1920).

Castrillo Ortuoste Fondoa.
Eibarko Udal Artxiboa.
Archivo Municipal de Eibar.
Fondo Castrillo Ortuoste

Honako hau argazki-liburu bat da. Baina batez ere gure bizitzari buruzko liburu bat da. Zergatik? Zer esanahi dute guretzat argazki horiek?

Lichtwark-ek, 1907. urtean, idatzi zuen "gure aroan ez dagoela norberaren, senitartekoen eta adiskide kutunenen, edota neskalagunaren argazkiak baino hurbilagoetik begiratzen zaion arte-lanik". Eta egia da. Izan ere, liburu zoragarri hau osatzen duten argazki horiek guztiek oso izenburu zehatza eduki arren, horietako askotan gelditu eta eguneroko bizitzan oharkabean pasatzen zaizkigun xehetasunen bila hasten baikara.

Zeren, nahiz eta aurpegiaren espresioari, jantzien xehetasunei, hiriaren itxurari, jendeak duen dibertitzeko moduari edo makinaren estetikari behin eta berriz begiratzen diegun, berez geure buruen bila aritzen gara. Gure historiaz zerbait gehiago jakin nahi dugu. Azken batean, geure buruak hobeto ezagutu nahi ditugu, eta horretarako, argazkia, hain sinplea izan arren, tresnarik egokiena dugu.

Argazki hauei esker, hobeto gogoratzen dugu nola bizi izan diren gure arbasoak, eta zenbaitetan, baita geure ere, baina oraingo honetan, gainera, horiei esker, argazkilari-belaunaldi baten borondatea eta dedikazioa ere ezagutuko dugu.

Beste askorena bezala, argazkilariaren lanbidea –garai jakin batean bai bederen– familia beraren barruan belaunaldiz belaunaldi igarotzen zen lanbidea izan genuen. Ortuoste familiaren kasua, Feliciano Castrillo bertan sartu zenez geroztik, beste bat gehiago izango zen baldin eta bere artxiboa mende oso batez gordetzeko interes handia izan ez balu, kontuan izanik, gainera, bere karreraren amaieran, inolako asmorik gabe laga zuela.

Artxibo honek duen garrantziaz jabeturik, Euskadiko Kutxak proiektu horri babesa eskaini nahi dio bertan geuk ere parte hartuz, gure esku dauden bitartekoak erabiliz eta, horrela, argazki-bilduma hau bere neurrian balioesten lagunduz.

Este es un libro de fotografías. Pero sobre todo es un libro sobre nuestra vida. Porque, ¿qué suponen para nosotros estas fotografías?


Lichtwark, ya en 1907 escribió que "en nuestra era no hay obra de arte a la que se mire tan de cerca como a una fotografía de uno mismo, de los parientes y amigos más íntimos, de la novia de uno". Y es verdad. De hecho, a pesar de que todas estas fotografías que componen este magnífico libro tienen un título muy concreto, en muchas de ellas nos paramos buscando detalles que en la vida diaria nos resultan insignificantes.

Porque aunque aparentemente miramos y remiramos las expresiones de los rostros, los detalles de los vestidos, el aspecto urbano de la ciudad, la manera de divertirse de la gente, o la estética de las máquinas, en realidad no hacemos más que buscarnos a nosotros mismos. Queremos saber algo más sobre nuestra historia. En definitiva, conocernos mejor, y para ello, la fotografía -a pesar de su simpleza- es la mejor herramienta.

Gracias a estas fotografías, recordamos mejor como han vivido nuestros antepasados, y en algunos casos incluso nosotros mismos, pero en esta ocasión, además, gracias a ellas descubrimos también la voluntad y dedicación de una saga de fotógrafos.

Como tantos otros, el de fotógrafo ha sido -al menos durante una determinada época- un oficio que se ha transmitido de modo familiar a través de las distintas generaciones. El caso de la familia Ortuoste, a la que se incorporó Feliciano Castrillo, sería uno más sino fuera por el gran interés que han tenido en guardar su archivo a lo largo de todo un siglo de existencia, para luego, al final de su carrera, cederlo sin pretensiones de ningún tipo.

Conscientes de la importancia de este archivo, desde Caja Laboral queremos respaldar este proyecto con nuestra participación en el mismo, poniendo los medios posibles a nuestro alcance y así poder contribuir a valorar en su medida esta gran colección de fotografías.



Caja Laboral - Euskadiko Kutxa
Koldo Aizpurua Esnal

Director Regional de Gipuzkoa - Gipuzkoako Lurraldeko Zuzendariak



Fiamma kamera, 1910. urte
inguruan Firenzen
egindakoa, 18x24 zmk
neurritainoko
beirazko plaken negatiboetarako
erabili zen.

*Cámara de estudio Fiamma,
realizada en 1910 aprox. en
Florencia (Italia). Se utilizaba con
negativos sobre placa de vidrio de
formatos hasta 18x24 cm.*

Castrillo Ortuoste Fondoa.
Eibarko Udal Artxiboa.
Archivo Municipal de Eibar.
Fondo Castrillo Ortuoste

**1997. Castrillo Ortuoste
Artxiboaren dohaintza:
Irudiak ordenatu, oroimena
berreskuratu.**

Feliciano Castrillok, 1996ko abuztu hartan, bere argazki-fondo osoa udalari eman nahi ziola esaten deitu zigunean, ez genekien aurrean genuen erronka hura nolakoa izango zen. Julian Etxeberria kaleko 11. etxearen lehenengo pisuan, Castrilloren estudioa egon zen lekuan, plakak zeuzkaten kaxak, erretratuak, zeluloideak, negatiboak, kamerak, argazkiak ateratzeko erabiltzen zituen fondoak, handigailuak, errebelatuetarako ontziak, argitalpenak eta eskuliburuak, dena pilatuta zegoen. Bizi oso bat zegoen estudio eta laboratoriorio hartan sakabanatuta zeuden milaka objektu haietan.

Hango gauza guztiak Udal Artxibora ekarri ziren, dena kaxa handi batzuetan sartuta eta etiketak ipinita. Aurreneko inbentarioa 1997ko irailaren 10ean amaitu zen, eraman handiko Irune Iriondo Landa praktiketako ikaslearen laguntzari esker. Handik egun batzuetara, irailaren 27an egindako ekitaldian, Eibarko Udalbatzak Castrillo Ortuoste Fondoa bere ardurapean hartu eta Feliciano Castrillori eskerrak eman zizkion.

**1997. La donación del Archivo de
Castrillo Ortuoste:
Ordenar imágenes, organizar la
memoria.**

Cuando en agosto de 1996 recibimos la llamada de Feliciano Castrillo para iniciar el proceso de donación de su fondo fotográfico no supusimos el reto al que nos íbamos a enfrentar. En el primer piso de la casa nº 11 de Julian Etxeberria, donde había estado ubicado el estudio de Castrillo, se acumulaban cajas de placas, fotografías, celuloides, negativos, cámaras, fondos, ampliadoras, cubas de revelado, publicaciones y manuales. Una vida entera en los miles de objetos repartidos por el estudio y el laboratorio.

El traslado al Archivo Municipal se realizó con urgencia en cajas etiquetadas y el primer inventario se terminó el 10 de septiembre del año siguiente, con la paciente colaboración de Irune Iriondo Landa, alumna en prácticas. Días más tarde, el 27, el Pleno Municipal, en un acto protocolario, asumía la aceptación del Fondo Castrillo Ortuoste y agradecía a Feliciano Castrillo dicha donación.

Yo, Feliciano Castillo Ortuoste, fotógrafo
y vecino de Eibar, he decidido:

Donar todo mi fondo de material fotográfico,
placas y fotografías al Ayuntamiento de
Eibar a través de su Comisión Ego Yama,
para que dicho Fondo se guarde y se con-
sere en las debidas condiciones y en un
futuro no muy lejano se difunda y se muer-
tra al pueblo de Eibar, porque considero
que forma parte de la historia local y puede
ser de mucho provecho y utilidad.

Por último pido que el nombre oficial de
dicho fondo sea el de FELICIANO CASTRILLO ORTUOSTE
FONDOA, en recuerdo de mis abuelas y mis
padres, a los cuales debo mi afición y poste-
riormente profesión de fotógrafo.

En Eibar a 8 de Agosto de 1997.

Foto Castillo
ORTUOSTE, n.
EIBAR

Castrillo Ortuoste Fondoaren
dohaintzaren eskuizkribua,
Feliciano Castrillok izenpetutakoa.
Manuscrito de la donación del fondo
Castrillo Ortuoste firmado por
Feliciano Castrillo.

Castrillo Ortuoste Fondoa.
Eibarko Udal Artxiboa.
Archivo Municipal de Eibar.
Fondo Castrillo Ortuoste

Horrez gain, lanari ekin baino ez zitzaion egin. Fondoak betetzen zituen 99 kaxa handi haietan pilatutako 200.000 negatibo haiei forma eman behar zitzairen. Eibarko argazkiez osaturiko ehun urte inguruko puzzle bat egin beharra zegoen.

Hasiera batean gure lana 1936a baino lehenagokoak ziren ia 700 egile-kopia haietan ardaztu genuen. Estudioan ateratako familia argazkiak, koloretutako postalak eta Eibarko bizimodu sozialaren eta politikoaren erreportaiak ziren, fondoaren corpus zaharrena alegia.

1999. urtean, industriari eta bizimodu sozialari zegozkion 2000 argazki inguru aukeratu eta Castrillo Ortuoste Fondoa garbitzen eta digitalizatzen hasi zen. Horretarako, Udal Artxiboak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, behar zen tresneria erosi eta udalak hartutako konpromisoa gauzatu zuen, lan hori egingo zuen aditu bat kontratatuta.

Bitartean, Fondoaren irudiak sarri askotan erabili izan dira erakusketak antolatzerakoan, diaporamak egiterakoan, katalogoak kaleratzerakoan, programak, kartelak eta webguneak argitara ematerakoan. Horrela, bere azken helburua bete egiten dugu, zabalkundearena; bete egiten dugu baita Feliciano Castrillok egindako dohaintza-aktan azaldu zuen gogoetariko bat.

Estudioko materialen inbentario bat egin da eta pieza onenak edo esanguratsuenak zaharberitu egin dira. Antzinako argitalpenak katalogatu eta interesgarrienak Udal Liburutegiaren fondoan geratu dira, gaur egun, jende ororen esku daudelarik.

Edozein modutan ere, erretratueta agertzen den jendearen eta gauzen identifikazioa da osatzeke dagoen lana; sekulako lana. Bizi izatea tokatu zaion mendearen lekuko izan den familia horrek gure esku utzi duen agiri bakoitzaren narrazio historikoa berreskuratzen joan behar dugu.

No obstante la tarea acababa de empezar. Había que dar forma a los casi 200.000 negativos que se amontonaban en las 99 cajas del Fondo. Había que ir recomponiendo un puzzle de casi cien años de fotografías en Eibar.

En un primer momento, nuestro trabajo se centró en las casi 700 copias de autor anteriores a 1936. Correspondían a fotografías familiares de estudio, postales coloreadas y reportajes de la vida social y política eibarresa que formaban el corpus más antiguo del fondo.

En 1999, sobre una selección de 2000 imágenes dedicadas a la serie de industria y vida social, se inician los trabajos de limpieza y digitalización del Fondo Castrillo Ortuoste. Para ello, el Archivo Municipal, con la colaboración del Gobierno Vasco, adquiere el equipo necesario y el Ayuntamiento asume el compromiso mediante la contratación de una persona especializada dedicada a esta labor.

Durante este tiempo las imágenes del Fondo Castrillo Ortuoste han servido de soporte a exposiciones, diaporamas, catálogos, programas, carteles y páginas web. Con ello cumplimos con su último cometido, la difusión y uno de los deseos que en su día expresó Feliciano Castrillo en el acta de donación.

En cuanto a los materiales de estudio, se ha elaborado un inventario y se han restaurado las piezas más significativas. Las publicaciones de época se han catalogado y las más interesantes, han pasado a formar parte del fondo bibliotecario municipal y hoy por hoy, se encuentran abiertas a la consulta del público en general.

No obstante, queda pendiente una ingente labor de identificación. Hay que ir rescatando la narración histórica de cada uno de estos documentos que nos han sido legados por una familia que ha sido testigo del siglo que le ha tocado vivir.

Yolanda Ruiz Urbón

Udal Artxibozainak
Archivera Municipal



Argazki-objektibo alemanak,
obturadore gainean muntatuak.

*Objetivos fotográficos alemanes
montados sobre obturador.*

VOIGTLÄNDER BRAUNSCHWEIG.
HELIAR 1:45/24 cm.
VOIGTLÄNDER BRAUNSCHWEIG.
COLLINEAR 1:63/31 cm.

Castrillo Ortuoste Fondoa.
Eibarko Udal Artxiboa.
Archivo Municipal de Eibar.
Fondo Castrillo Ortuoste

Mende osoa begien aurrean

Castrillo Ortuoste Fondoa

Las miradas de un siglo

Mende osoa begien aurrean

Las miradas de un siglo

Castrillo Ostuostetarren argazkilari-leinu honen aurreneko belaunaldia Roman Ortuoste eibartarrarekin hasi zen. Isidro Felipe Ortuoste eta Demetria Echalucren¹ semea; 1864ko azaroaren 18an jaioa eta 1941ean zendu zena. Juanita Cengotita Garitagoitiarekin ezkondu zen 1889. urtean eta host seme-alaba izan zituzten: Mercedes 1895ean jaioa, Victoria 1899an, Faustino 1901ean, Luciano 1908an eta Gregorio, gazteena, 1910ean².

Hasiera batean, Romanen lanbidea -garai hartako beste hainbat eibartarrena bezala- grabatugintza izan zen; behar horretan jardun zuen harik eta 1901ean³ Aldatze jauregirako bidean zegoen Indianokoa jauregiaren ostean "La Independencia" argazki-estudioa zabaldu zuen arte.

La primera generación de fotógrafos de la familia Castrillo Ortuoste comienza con la figura del eibarrés Román Ortuoste, hijo de Isidro Felipe de Ortuoste y Demetria Echaluze¹, nacido el 18 de noviembre de 1864 y muerto en 1941. Se casó con Juana Cengotita Garitagoitia en el año 1889 y de este matrimonio nacieron cinco hijos: Mercedes en 1895, Victoria en 1899, Faustino en 1901, Luciano en 1908 y el pequeño Gregorio en 1910².

Como tantos eibarreses, en un primer momento la trayectoria profesional de Román se dirigió al trabajo artesanal de grabador y como tal ejerció su oficio hasta que en 1901³ decidió abrir el estudio fotográfico "La Independencia" en la parte trasera del Palacio de Indianokoa, conocida como la subida a otro Palacio, el de Aldatze.



1904. Román Ortuoste bere seme-alabekin, Mercedes ezkerrean, Victoria eskuman eta Faustino atzean. *Román Ortuoste con sus hijas Mercedes a la izquierda, Victoria a la derecha y su hijo Faustino.*

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa.
Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.



1925. Juana Cengotita, Román Ortuosteren andrea, estudioan. *Juana Cengotita, esposa de Román Ortuoste, en el estudio.*

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa.
Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.

¹Biztanleriaren zentsoa, 1857. Eibarko Udal Artxiboa. EUA, B-02-01.

²Biztanleen errolda, 1912. Eibarko Udal Artxiboa. EUA, B-02-20.

³Obra partikularren proiektuak, 1901. Eibarko Udal Artxiboa. EUA, C-05-21.

¹Censo de población, 1857. Archivo Municipal de Eibar. EUA, B-02-01.

²Padrón de habitantes, 1912. Archivo Municipal de Eibar. EUA, B-02-20.

³Proyectos obras particulares, 1901. Archivo Municipal de Eibar. EUA, C-05-21.

Eibarren, arte aplikatuen tradizioak, eta batik bat grabatugintzak, dibujatzen ikastea eta armagintzan beharrean jardutea eskatzen zuen. Horretarako bazegoen XIX. mendean sortutako Dibujo Akademia, udalarena, jende helduarendako gauez eta egunez klaseak eskaintzen zituen; bertan ikasten ziren dibujo lineala, dibujo artistikoa eta dotoretzailea. Ikasketa horiei berezkoak zitzaizkien ikasgaiez gain, geometria ere ematen zen, besteen osagarri. 1895. urtean jende asko matrikulatu zenez, Akademia bitan banatu zen, neskak batean, mutilak bestean. Ez da harritzekoa matrikula asko izatea, izan ere, XX. mendearen lehen laurdenean familia arteko tailer txikietan hainbat gizon-emakumek baitziharduen grabatugintzan eta damaskinatugintzan.

Romanek bere ogibide berria aurrera ateratzeko beharrezkoak zituen ezaguera teknikoak non jaso zituen jakitea zaila da. Edonola ere, agiritan garbi jasota geratu dena da grabadore lana ez zuela albo batera laga, izan ere, argazkilaritza, Europan XIX. mendearen erdi aldetik ezaguna bazen ere, ez baitzen lanbide ikasterraza eta soldata ziurrekoa. Horregatik, matrikula industrialean, argazkilari moduan ez da agertzen bere izenaren altarik 1913. urtera arte.

En Eibar la tradición de las artes aplicadas, y en concreto la del grabado, estaba unida al aprendizaje del dibujo y al trabajo armero. Para ello existía ya desde el siglo XIX la Academia de Dibujo municipal que impartía clases diurnas y nocturnas para adultos, y donde se aprendía dibujo lineal y el artístico u ornamental. Como complemento a los conocimientos propios del programa se daban clases de geometría. Debido a una alta matriculación en 1895 se divide la Academia en dos secciones, una de niños y una segunda de niñas⁴. Así, no es de extrañar que en el primer cuarto del siglo XX hubiese un buen número de hombres y mujeres ligados a pequeños talleres familiares y dedicados a las tareas del grabado y del damasquinado.

Es difícil saber donde adquirió Román los conocimientos técnicos necesarios para el desarrollo de su nueva profesión. Lo que sí queda claro es que la novedad a la que se enfrentaba -pues la fotografía, aunque conocida en Europa desde mediados del siglo XIX no era una profesión de fácil aprendizaje y de sueldo seguro- hizo que no abandonase por completo su oficio de grabador. Es por ello que hasta 1913⁵ no aparece dado de alta como fotógrafo en la matrícula industrial.



1903. Zumaran Dorretxea edo "Indianokoa". Jauregiaren ostean, Aldatzeko igoera izenez ezagutzen zen lekuan, Román Ortuosteren lehenengo estudioa zegoen. Casa Torre de Zumaran o Palacio de Indianokoa. En la parte trasera de este palacio, conocida como la subida a Aldatze, se ubicó el primer estudio de Román Ortuoste.

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa. Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.

⁴MÚGICA, Gregorio. Monografía Histórica de la Villa de Eibar. Eibar, 1984.

⁵Matrikula Industrial, 1913. Eibarko Udal Artxiboa. EUA, C-01-10.

⁴MÚGICA, Gregorio. Monografía histórica de la villa de Eibar. Eibar, 1984.

⁵Matrícula Industrial, 1913. Archivo Municipal de Eibar. EUA, C-01-10.

Kazaria eta musika-zalea, akaso bera izango da Toribio Etxebarriaren *Viaje por el país de los recuerdos*⁶ liburuan agertzen den "Antxuelo" pertsonajea. Bere zaletasun nagusi bi horiek hainbat eta hainbat argazkitan batu zituen: musika bandak, ehiztari taldeak kasan jasotakoarekin, orkestra txikiak, Sarasqueta familiakoak kazara joan ostean, Villabella alkatea berak akabatutako hartz handi batekin... Garai hartakoak dira heldu zaizkigun interes handieneko egile-kopiak.

Ez zuen bakarrik estudioan jardun mendearen hasierako eibartarren erretratuak ateratzen; horrez gain, oso pertsona gutxiren oroimenean baino geratzen ez den orduko Eibar hura ere ederto asko jaso zuen: Indianokoa, Untzaga Plazako kiosko zaharra, Barrenkale, Amaña aldeko antzinako ortuen ondotik zihoan tren zaharra...

Argazkietako itxura baketsu eta nare hori azalekoa zen, aurreko mendeetako beharginen gremio eta elkarten aztarnak gordetzen zituzten urte haiek gizarteari demaseko lorpenak ekarri baitzizkioten,

Aficionado a la caza y a la música, probablemente sea el "Antxuelo" que aparece en el libro de Toribio Viaje por el país de los recuerdos⁶ de Toribio Echebarria, Román recogió en sus fotografías un gran número de escenas que corresponden a estas dos actividades: bandas de música, grupos de cazadores posando con sus trofeos, las orquestinas, la familia Sarasqueta con sus piezas después de una cacería, carnavales, el alcalde Villabella con un gran oso muerto... De esta época se conservan también las copias de autor más interesantes.

Román no sólo se dedica al trabajo de estudio fotografiando a los eibarreses de ese primer cuarto de siglo sino que además recoge el Eibar que ya sólo queda en la memoria de unos pocos: el palacio de Indianokoa, el viejo Kiosko de la Plaza de Unzaga, Barrenkale y las huertas de Amaña atravesadas por un viejo tren de vapor.

Era esa una placidez aparente porque fueron años que, herederos de un espíritu gremial y societario, trajeron consigo logros sociales importantes no

1900. Román Ortuoste, ehiza-zalea, kazari talde batekin. *Román Ortuoste, aficionado a la caza, con un grupo de cazadores.*

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa. Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.



⁶EHEBARRIA, Toribio. *Viaje por el país de los recuerdos*. Donostiako Aurrezki-Kutxa Munizipala. Donostia, 1990, 155 orr.

1902. San Andres Ospitalea, lehengo ospital zaharraren gainean jaso eta 1901eko abenduaren 30ean inauguratu zena, Juan Bautista de Belausaranena da. 1904ko urritik hona Mertzendarietako mojek dute haren ardura. *El Hospital Asilo de San Andrés inaugurado el 30 de diciembre de 1901 y edificado sobre el antiguo hospital fue obra de Juan Bautista de Belausaran. Desde octubre de 1904 están a cargo de su gobierno las Hermanas Mercedarias de la Caridad.*

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa • Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.



⁶EHEBARRIA, Toribio. *Viaje por el país de los recuerdos*. Caja de Ahorros Municipal. San Sebastian, 1990, pág. 155.

istilu eta gatazka artean izan bazen ere. Hantxe zegoen argazkilaria herriko historiaren unerik garrantzitsuenak biltzen: mitinak, inaugurazioak, izen eta ospe handiko pertsonen aldeko omenaldiak, 1931ko apirilaren 14ko goizalde hartan udaletxearen balkoian Errepublikaren aldarrikatu zenekoa...

Hiru seme izanda ere, alaba bietatik nagusia, Victoria izan zen aitaren ofizioari eutsi eta leinuaren batetik besterako katea lotu zuena. Bilboko Feliciano Castrillo argazkilariarekin ezkondu zen.

Feliciano Castrillo, 1898ko⁷ abuztuan jaio zen eta Bilboko Zalduean eta Foto Espigean ikasi zuen bere lanbidea; bigarren horretan ezagutu zuen Victoria, bera baitzen aitaren erretokeak hiriburura eramateko eta beharrezkoak ziren argazki-materialak erosteko ardura zuena. Lorenzo Espigak 1900. urte inguruan jarri zuen "Foto Espiga" denda, hainbat argazkilariren ikasleku eta Castrillo familiaren hornitzaile berrogeita hamargarren hamarkadara arte.

exentos de una gran conflictividad. El fotógrafo nos recoge momentos importantes para la historia de la ciudad: mítines, inauguraciones, homenajes a personalidades y la proclamación de la segunda República el 14 de abril 1931 desde el balcón del Ayuntamiento.

Es curioso que ninguno de sus tres hijos varones continuase con el oficio y que le correspondiese a su hija Victoria, casada con un fotógrafo bilbaino, Feliciano Castrillo, ser el vínculo de unión en esta saga familiar.

Feliciano Castrillo, nacido en agosto de 1898⁷, aprende su oficio en Zaldúa y Foto Espiga de Bilbao donde conoce a Victoria encargada de llevar los retoques de su padre a la capital y comprar el material fotográfico necesario. Foto Espiga, fundado por Lorenzo Espiga hacia 1900, fue taller de aprendizaje de diversos fotógrafos y continuará como proveedor de la familia hasta entrados los años cincuenta.

1926. Feliciano Castrillo González.

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa.
Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.



1915. Victoria Ortuoste Cengotita.

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa.
Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.



1917. Feliciano Castrillok Victoria Ortuoste Bilbon ezagutu zuen, Victoria baitzen ukituak edo erretokeak egiteko argazkiak Bilbora eramaten zituen.

Feliciano Castrillo conoció a Victoria Ortuoste en Bilbao ya que era ella la encargada de llevar los trabajos de retoque a la capital.

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa.
Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.



⁷Biztanleen Errolda, 1935. Eibarko Udal Artxiboa. EUA B-2-23.

⁷Padrón de habitantes, 1935. Archivo Municipal de Eibar. EUA B-2-23.

Irakurtzea zuen gustuko Felicianok, politika kontuan ezkertiarra, sozialista. Eibarren zabaldu zuen estudioa Barrenkaleko 11. etxean. Victoria Ortuostek eta Feliciano Castrillok hiru seme izan zituzten, Lucas 1918an jaiotakoa, Juan 1922an eta Feliciano, 1936an munduratutakoa. Dibujante aparta zenez eta argazkilaritzarako joera zuenez, ematen zuen Lucas izango zela aitaren⁸ ofizioaren jarraitzaile; 16 urterekin bere aitaren estudioan ziharduen ikasten, baina zoritxarreko gertaera batek goitik behera apurtu zuen familiaren bizimodua: gerrateak.

Ordurako Lucas sartuta zegoen "Furia Roja" taldean, gazte komunistek eta sozialistek osatutako taldean. Gerra atera zenean Amuategui Batalioian sartu zen miliziano hirugarren Konpainian⁹. Heriotza Lemoatxan heldu zitzaion, 1937ko ekainean. Juan bere anaia hiru urte lehenago zendu zen apendizitis ebakuntza batean. Etxeko gazteena, Feliciano, 1936. urtean jaio zen Bilboko Zazpi Kaleetan.

1926. Faustino Ortuoste, Lucio Unanue eta sidekarrean jarrita Román Ortuoste. Gerra ostean, Lucio Unanue izan zen Feliciano Castrillok Bidebarrieta kalean argazki-estudioa zabaltzeko agiri ofizial guztiak bere izenean atera zituen.

Faustino Ortuoste, Lucio Unanue y Román Ortuoste sentado en el sidecar. Lucio Unanue tramitará durante los primeros años de la postguerra toda la burocracia necesaria para la apertura del nuevo estudio de Feliciano Castrillo en la calle Bidebarrieta.

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa. Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.



1933. Lucas eta Juan Castrillo Ortuoste izebarekin, Rafaela Castrilloekin. Juan handik urte batzuetara hil zen apendizitis ebakuntza egin ziotenean, 12 urterekin. 1937. urtean, Lucas Bilboko frontean hil zen, Lemoatxan.

Lucas y Juan Castrillo Ortuoste con la tía Rafaela Castrillo. Un años más tarde Juan falleció en una operación de apendicitis a la edad de 12 años y cuatro años después, en 1937, Lucas en la batalla de Peña Lema en el frente de Bilbao.

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa. Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.



Aficionado a la lectura y políticamente comprometido con la izquierda socialista, Feliciano estableció su estudio en Eibar en el número 11 de la desaparecida Barrenkale. Del matrimonio de Victoria Ortuoste y Feliciano Castrillo nacieron tres hijos: Lucas en 1918, Juan en 1922 y Feliciano en 1936. Parecía que Lucas, dadas sus buenas cualidades como dibujante y su afición a la fotografía, iba a ser el continuador del oficio y ya con 16 años trabaja como aprendiz en el estudio de su padre⁸. Pero un acontecimiento cambia la lógica y el orden de la vida de esta familia: la guerra civil.

Lucas, que ya por entonces pertenece al grupo de jóvenes comunistas y socialistas "Furia Roja", cuando se declara la Guerra entra a formar parte del Batallón Amuategui como miliciano de la tercera Compañía⁹ y muere en Junio de 1937 en la batalla de Peña Lema. Su hermano Juan había fallecido tres años antes en una operación de apendicitis y es en 1936 cuando nace en el Casco Viejo de Bilbao el pequeño Feliciano Castrillo.

1937. Amuategi Bataloiaren Bigarren Konpainia Santa Kurutzen. Zutik, ezkerretik eskumara: Victor Lekumberri, Enrique Barrundia, Rafael Bastida, Galdona, Eugenio Gurrutxuga, Droget, Luis Ecenarro. Jarrita, ezkerretik eskumara: (?), Gurrutxuga, Lucas Castrillo eta Juan Elkoro.

Segunda Compañía del Batallón Amuategi en Santa Cruz. De pie, de izquierda a derecha: Victor Lekumberri, Enrique Barrundia, Rafael Bastida, Galdona, Eugenio Gurrutxuga, Droget, Luis Ecenarro. Sentados, de izquierda a derecha: (?), Gurrutxuga, Lucas Castrillo y Juan Elkoro.

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa. Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.



⁸Idem.

⁹Amuategi Batalioikideen nominak. Eibarko Udal Artxiboa. EUA. GC-R-9.

⁸Idem.

⁹Nómina de personal del Batallón Amuategui. Archivo Municipal de Eibar EUA. GC-R-9.

Eibar 1937ko apirilaren 25ean bonbardatu zuten; Castrillo-Ortuoste familiak etxea eta estudioa galdu zituen eta familia banatu egin behar. Victoriak, bere semea hartu eta Bilbora jo zuen, handik Santanderrera, itsasontzia hartu eta Frantziara, eta Frantziatik Bartzelonara, Pirinioak Port-Boutik zeharkatuta. Errepublikaren ametsa akitua, Frantziarako bidea hartu zuten berriro, han, iheslariendako hainbat aterpetan egon ondoren, Bilbora itzuli ziren eta 1941ean Zaldibarren pausatu, Eibarrera noiz bueltatuko.

Aitak, Feliciano Castrillok, 1937an Bergarara joan eta han jardun zuen argazkilaritzan 1938. urtera arte¹⁰. Gero estudio txiki bat ipini zuen Deban, gerra amaitu zenean laga zuena.

Itzulera ez zitzaion erraza egin. Gerra amaituta, gerra galduta, Felicianok bere bizimodua Eibarren aurrera atera nahi izan zuen baina politika kontuan zituen aurrekariak –ez dezagun ahastu bere militantzia politikoa- ez zioten biderik zabaltzen. Senideengana eta lagunengana jo behar izan zuen buelta gozoago bat bilatzearren; Lucio Unanue Gáratek asko lagundu zion horretan.

Bombardeada Eibar el 25 de abril de 1937 el estudio y la casa de los Castrillo Ortuoste quedan totalmente destruidos y de este modo se precipita la diáspora familiar. Victoria marcha con su hijo a Bilbao, de allí a Santander, embarcan para Francia y cruzan el Pirineo para volver a través de Port-Bou a Barcelona. Una vez liquidado el sueño republicano huyen de nuevo a Francia donde, después de pasar por distintos campos de refugiados, regresan a Bilbao y en 1941 se instalan provisionalmente en Zaldibar a la espera de su regreso a Eibar.

Por su parte Feliciano Castrillo padre en 1937 marcha a Bergara estableciéndose como fotógrafo hasta 1938¹⁰. Después habilita un pequeño estudio en Deba que abandona al finalizar la guerra.

La vuelta no iba a ser fácil. Concluida y perdida una guerra, Feliciano intenta rehacer su vida en Eibar, pero debido a sus antecedentes políticos, no olvidemos su militancia socialista, tiene que recurrir a familiares y amigos, y más en concreto a Lucio Unanue Gárate, que le van a facilitar ese retorno.

1936. Barrenkalearen barrena. Bertan, Feliciano Castrilloren estudioa zegoen. *Vista del inicio de la desaparecida Barrenkale donde se encontraba el estudio de Feliciano Castrillo.*

Eibarko Udal Artxiboa. Inalezio Ojanguren Artxiboa. *Archivo Municipal de Eibar. Archivo Indalecio Ojanguren.*



1939. Barrenkalea 1937ko bonbardaketaren ondoren. Castrillo-Ortuostetarren etxea birrinduta geratu zen eta negatiborik zaharrenak orduan galdu ziren. *Barrenkale después del bombardeo de 1937. La casa de los Castrillo Ortuoste quedó totalmente destruida y junto a ella se perdieron los negativos más antiguos.*

Eibarko Udal Artxiboa. Inalezio Ojanguren Artxiboa. *Archivo Municipal de Eibar. Archivo Indalecio Ojanguren.*



1945. Victoria Ortuoste, Feliciano Castrillo (aita), Feliciano Castrillo (semea) eta aitona, Juan Castrillo. *Victoria Ortuoste, Feliciano Castrillo (padre), Feliciano Castrillo (hijo) y el abuelo Juan Castrillo.*

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa. *Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.*



¹⁰OREGI, A. Et alii. Eustaquio Aguirreolea. Pintore eta argazkilaria. Bergarako Udala, 2000, 75 orr.

¹⁰OREGI, A. Et alii. Eustaquio Aguirreolea. Pintore eta argazkilaria. Bergarako Udala, 2000, pág 75.

Lucio Unanuek, 1940ko apirilean, Bidebarrieta kaleko¹¹ 62. etxearen beheko solairuan argazkiak ateratzeko estudio bat zabaltzeko eta errotulu bat jartzeko eskaera egin zuen udalean. Urte batzuetan, Felicianok egin beharrean bere adiskide Unanue izango zen agiri guztiak bere izenean bideratuko zituen, baina ez hori bakarrik: 1939tik 1941era¹² bitartean Unanue bera egin zen kontribuzioaren ordainketa guztien kargu Bidebarrietako argazkilari hura bera izango balitz bezala.

1942an, erregimenaren hasierako purgen ondoren, Feliciano Castrillo berriro hasi zen azaltzen estudioaren titular. Baina bizitzan ez zuen zorte handirik izan eta estudioa lehen zuenaren kale bereko 21. etxean¹⁴ jarri eta handik lau hilabetera, 1946ko otsailaren 15ean, hil egin zen.

Victoria, aitaren ofizioa ume-umetatik bizi izandakoa, Felicianorekin ezkondu ondoren laboratorioaren eta estudioaren kargu egin zen. Luciano bere anaiarekin hasi zen lanean eta segida eman zion familiako betiko lanari. Bera dugu

En abril de 1940 Lucio Unanue presenta la solicitud para la apertura al público de un estudio fotográfico y para la colocación de un rótulo anunciador en la planta baja de la casa n° 62 de Bidebarrieta¹¹. Durante varios años Lucio no sólo seguirá tramitando a su nombre toda la burocracia, que en su día debería haber realizado Feliciano, sino que además realizará los pagos de la contribución industrial como fotógrafo de la galería de Bidebarrieta desde 1939 hasta 1941¹².

En 1942, pasadas las primeras purgas del régimen, Feliciano Castillo aparece de nuevo como fotógrafo titular¹³, pero la suerte no iba a estar de su lado y muere el 15 de febrero de 1946, cuatro meses después del traslado del estudio al número 21 de la misma calle¹⁴.

Victoria, que desde niña había vivido el oficio con su padre y que, después de su boda con Feliciano se había dedicado al trabajo de laboratorio y de estudio, decide formar equipo con su hermano Luciano y continuar el trabajo familiar,

1945. Castrillo eta Unanue familiak Bidebarrieta 62ko estudioaren balkoian.
La familia Castrillo con la familia Unanue en los balcones del estudio de Bidebarrieta 62.

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fonda.
Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.



¹¹Akta Liburua, 1940. Eibarko Udal Artxiboa. EUA A-1-1.61.

¹²Kontribuzio Industrial. EUA C-1-17.

¹³Idem.

¹⁴Biztanleen Errolda, 1945. Eibarko Udal Artxiboa. EUA 728.

¹¹Libro de Actas 1940. Archivo Municipal de Eibar. EUA A-1-1.61.

¹²Contribución Industrial. EUA C-1-17.

¹³Idem.

¹⁴Padrón de habitantes. 1945. Archivo Municipal de Eibar. EUA 728.

Eibarrek izan duen lehen emakume argazkilari profesionala¹⁵. Emakume saiatua eta alai, gorde izan dira bere buruari atera zizkion erretratu batzuk eta egin zuen argazki-muntairen bat.

1949an, Ortuoste anaia-arrebek estudioa Generalísimo kalean egindako etxe berrietan jartzea pentsatu zuten -gaur egun Julian Etxeberria kalea, 11- bonbardaketak baino lehen Roman eta Felicianorenak egon ziren lekutik hurrean.

Lan eta hazkunde handiko urteak izan ziren haiek. Eibarrek, 1945ean 13.823 biztanle zituen, baina urte bakar batean, 1946an, %24aren igoera izan zuen, tailerren behargin eskariak eta etxegintzarenak¹⁶ demaseko jende olatua erakarri baitzuten. Diru aldetik ere jendea hobeto zebilenez, asteburuetan jendea estudiora joaten zen bere "ongizate" hura agerian uzteko eta beraien jatorriko herrietan utzitako familiari argazkiak bidaltzeko. Baina berriro ere destino zorigaitzokoak bisita egin zion familiari, eta 1954. urtean, neba-arreba biak, Victoria eta Luciano, hil egin ziren. Feliciano gaztea umezurtz geratu zen eta 18 urte besterik ez zituela argazkilari haien segitzaile bat eta bakarra izatea tokatu zitzaion.

convirtiéndose así en la primera fotógrafa eibarresa¹⁵. Mujer emprendedora y alegre se conservan de ella varios autorretratos y algún que otro fotomontaje.

En 1949 los hermanos Ortuoste deciden reubicar el estudio en las nuevas casas construidas en la Avenida del Generalísimo, hoy Julian Etxeberria número 11, muy cerca de donde habían estado los estudios de Román y de Feliciano antes del bombardeo.

Fueron estos años de una gran actividad. Eibar con 13.823 habitantes en 1945, en un sólo año, 1946, aumenta su población un 24 % debido a una fuerte inmigración, atraída por la demanda industrial y la demanda en el sector de la construcción¹⁶. Se empezó a notar un cierto auge económico y la gente acudía al estudio los fines de semana para dejar constancia de ese "bienestar" y mandar fotos a la familia que había dejado en otras regiones. No obstante, el destino da un giro a la vida familiar y en 1954 mueren Victoria y Luciano dejando a Feliciano huérfano y como el único continuador de la saga.



1950. Ortuoste Cengotita anai-arrebak. Ezkerretik eskumara eta goitik behera: Gregorio, Faustino, Luciano, Mercedes eta Victoria. Los hermanos Ortuoste Cengotita. De izquierda a derecha y de arriba abajo: Gregorio, Faustino, Luciano, Mercedes y Victoria.

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa.
Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.

¹⁵Kontribuzio Industrial, 1953. Eibarko Udal Artxiboa. EUA C-1-18.

¹⁶GARCÍA MANRIQUE, E. Eibar. Inmigración y desarrollo urbano. Zaragoza, 1962.

¹⁵Contribución Industrial, 1953. Archivo Municipal de Eibar. EUA C-1-18.

¹⁶GARCÍA MANRIQUE, E. Eibar. Inmigración y desarrollo urbano. Zaragoza, 1962.

Feliciano Castrillok bere umetako sasoia inorakoa ez zen bidaia geragabeen bizi izan zuen. Gerra ondoren, Eibarrera etorri zen 1945ean eta Lucas Alberdirekin hasi zen dibujatzen ikasten udalak horretarako propio jarritako eskolan; handik urte batzuetara, Marcanorekin¹⁷ laminako dibujo artistikoa landu zuen. 1949tik 1952era bitartean batxilergoa amaitu eta Madrilerara joan zen, Arte eta Ofizio Eskolara. Han osatu zuen dibujoaren¹⁸ alorrean eskuratu zuen prestakuntza. 1952an bertan itzuli zen Madrildik eta Luciano bere osabari laguntzen hasi zen erreportaiak egiten. Hala ere, argazkilaritzaren munduarekin zerikusia zuten gauza guztiak umetatik ezagutzen zituen, gertu ezagutu ere, eta gaztetatik hasi zen zapatu arratsaldeetan laboratoriora sartu eta kopiak errebelatzen, bere lagunekin egiten zituen ateraldietan argazkiak egiten.

Amaren eta osabaren heriotzak hartara derrigortuta, 1954an estudioaren kargu egin zenean, Jose Huidobro hartu zuen lankide eta Josek 1981ean erretiroa hartu arte hura izango zuen Felicianok beti alboan. 1958. urtean, handik urte batzuetara bere emazte izango zen M^a Paz López Apellaniz hasi zen bertan lanean.



Feliciano Castrillo había vivido parte de su infancia en un viaje continuo a ningún lugar. Con una guerra de por medio, regresa a Eibar en 1945 y empieza a estudiar dibujo con Lucas Alberdi en la escuela municipal y unos años después después dibujo artístico de lámina con Marcano¹⁷. Entre 1949 y 1952 termina el bachillerato y marcha a Madrid a la Escuela de Artes y Oficios donde completa su formación como dibujante¹⁸. Es este año de 1952 cuando vuelve de Madrid y empieza a acompañar a su tío Luciano en los reportajes. No obstante, Feliciano ya estaba familiarizado con todo lo que tenía que ver con la fotografía desde niño y, desde una temprana edad, los sábados por la tarde se mete en el laboratorio a revelar las copias y a hacer fotografías de sus amigos durante las excursiones.

En 1954, a raíz de la inesperada muerte de su madre y de su tío, se hace cargo del estudio. Contrata como oficial a José Huidobro que le acompañará en el oficio hasta su jubilación en 1981; en 1958 entra a trabajar con él la que más tarde será su mujer, M^a Paz López Apellaniz.

1954. Castrillo-Ortuostetaren azkenengo estudioa Generalísimo kalean (gaur egun, Julian Etxeberria). *El último estudio de los Castrillo-Ortuoste ubicado en la Avenida del Generalísimo, hoy Julián Etxeberria.*

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa.
Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.

Fotografía CASTRILLO

de Eibar, tiene el honor de anunciar a su distinguida clientela el traslado de su gabinete a los nuevos locales de la

CALLE ZULOAGA n.º 1-1.º

donde ha instalado su Estudio Fotográfico con todos los adelantos modernos donde se ejecutarán trabajos fotográficos, particulares, industriales, de fotocopias y para toda clase de documentaciones.

¹⁷Eibartarren Ahotan. Udal Artxiboa. EUA AB-313.

¹⁸Idem.

¹⁷Eibartarren Ahotan. Archivo municipal. EUA AB-313.

¹⁸Idem.

Felicianok berrogei urtez jardun zuen bere landidean; urte horietan Eibar handitzen ikusi zuen, sasoi berrira egokitzearen bertako industriak norabide aldaketa handiak egin zituen herria ezagutu zuen, etorkin andana bere magalean hartu eta ia 45.000 biztanle edukitzera heldu zen herria. Argazkilariaren begiradak fideltasun osoarekin gorde du orduko aberastasun hura: industrietarako katalogoak, esportazio eta inportazioetarako agiriaren argazkiak, fabrikak eta tailerrak handitzen zeudela ateratakoak, "errefreskoak", ezkontzak, jaunartzeak, herriko koadrilak... Beste garai bateko Eibar batera garamatzaten irudiak.

Baina Feliciano Castrillok jasotakoa ez da dena urre kolorekoa izan, urte latzak ere ikusi izan ditu, egoera berrietara moldatzen joan da. 1978. urtetik aurrera estudioko argazkigintzak beherakada izan zuen eta 1994ko abenduan estudioaren atea betiko itxi arte argazkilaritza publizitatearen beste zeregin batzuekin osatu zuen bizimodua nondik aterako.

Argazkilaritzaren leinu horren azken belaunaldia da Felicianorena; Eibarko herriaren iraganaren pasarteak berreskuratzeko orduan lekuko kutunak ditugun begiradak. Denboran urrun geratu arren, iragana datorkigu gainera, kezka sortzen digu paisaiak eta gizakiak damaizkigunean. Gure herri-oroimenean sustraituta daudenaren seinale.

En los cuarenta años de profesión Feliciano vive los años de la expansión de un Eibar que se adapta a los nuevos tiempos, diversificando su industria y acogiendo una potente inmigración que hizo que la ciudad llegase a contar con casi 40.000 habitantes. La mirada del fotógrafo refleja fielmente esa prosperidad: las fotografías para catálogos industriales, las fotografías de documentos sobre exportación e importación, las ampliaciones de las fábricas, los "refrescos", las bodas, las comuniones, las cuadrillas, muestran fragmentos que nos devuelven al Eibar de otro tiempo.

Pero en esos cuarenta años también se producen crisis que de nuevo hacen que Feliciano Castrillo se adapte a las nuevas circunstancias. A partir de 1978 se va perdiendo la foto de estudio y hasta su cierre definitivo en diciembre de 1994 compaginará el oficio de fotógrafo con otras actividades relacionadas con el mundo de la publicidad.

Es Feliciano la última generación de una saga de fotógrafos cuyas miradas constituyen un testimonio entrañable, con el que recuperamos fragmentos del pasado de un Eibar, que, aunque lejano en el tiempo, se nos simultanea y nos produce inquietud al mostrarnos paisajes y paisanajes que forman parte de nuestra memoria colectiva.

1960. Feliciano Castrillo Ortuosteren estudioko negatiboak gordetzeko kartazala. Sobre para guarda de negativos del estudio de Feliciano Castrillo Ortuoste

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa. Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.





Handigailua, MEF markakoa.
Objektiboa: TOPAZ, 1:35. F=50. BOYER PARIS

Ampliadora MEF.
Objetivo TOPAZ, 1:35. F=50. BOYER PARIS

Castrillo Ortuoste Fonda.
Eibarko Udal Artxiboa.
Archivo Municipal de Eibar.
Fondo Castrillo Ortuoste

Beirazko plaketatik irudi digitaletara
Castrillo Ortuoste Fondoaren ibilbidea

Castrillo Ortuoste Fondona

De las placas de vidrio a la imagen digital
El trayecto del Fondo Castrillo Ortuoste

Beirazko plaketatik irudi digitaletara Castrillo Ortuoste Fondoaren ibilbidea

De las placas de vidrio a la imagen digital El trayecto del Fondo Castrillo Ortuoste

Argazkilaritzak bere lehen jendearen aurrekoa 1839. urtean egin zuen, Parisko Zientzien Akademian. François Aragó diputatu liberalak eman zituen ezagutzera Niépce eta Daguerrek¹ asmatutako arte berriaren ezaugarriak. Daguerrotipistek, metalezko plantxa batean irudi bakar eta apartak islatzen zituzten aparatuen sortzaileek, laster zabaldu zuten beraien lana Europan eta Ameriketako Estatu Batuetan.

Aurrerapen teknikoak bata bestearen segidan iritsi ziren argazkilaritzaren alorrera. Talbotek, 1841. urtean negatibo batetik "milaka" aldaki egiteko aukera eskaini zuen Ingalaterran. Kolodio² umeleko plaken erabilerak azkartasuna ekarri zuen argazkiak ateratzerakoan, baina beirazko plakak argazkia atera baino une batzuk lehenxeago emultsionatu ahal izateko, gela ilun bat eraman behar zen aldean. Azkenik, zilar bromurozko eta gelatinazko emultsioa erabiltzeak, plakak eta argazki-paperak fabrikatzea eta merkaturatzea ahalbidetu zuen. Optikak eta artistendako dendak argazki-kamerak eta pieza osagarriak saltzen hasi ziren. Lanbide berri bat sortu zen eta ordutik aurrera erretratuaren³ monopolioa ez zen izan pinturarena.

Argazkilari profesionalak hiriburuetan⁴ eta orduko herri handietan jarri ziren, Bergaran⁵ esate baterako. XIX. mendearen hirurogeigarren

La presentación pública de la Fotografía fue en 1839 en la Academia de Ciencias de París. El diputado liberal François Aragó anunció las características del nuevo arte inventado por Niépce y su socio Daguerre¹. Los daguerrotipistas, creadores de estas imágenes únicas y artesanales se extendieron rápidamente por Europa y Estados Unidos.

Los avances técnicos en el campo de la fotografía se sucedieron. Talbot en Inglaterra, ofreció en 1841 la posibilidad de realizar todas las copias deseadas a partir de un negativo. El uso de placas al colodión húmedo proporcionó rapidez en las exposiciones, aunque requería transportar un cuarto oscuro para emulsionar las placas de vidrio, justo antes de la toma. Por fin, el uso del gelatino bromuro de plata hizo posible la fabricación industrial y comercialización de las placas y papeles fotográficos. Las ópticas y tiendas para artistas vendieron cámaras fotográficas y accesorios. Surgió un nuevo oficio y la Pintura ya no tuvo el monopolio del retrato².

Los fotógrafos profesionales se instalaron en las capitales³ y en las poblaciones importantes, como la cercana Bergara⁴. En los años sesenta del siglo XIX, este arte llegó a todos los rincones. Los fotógrafos se convirtieron en los ojos del mundo, hasta entonces sólo conocido por relatos y libros de viajes.

¹SOUGUEZ, Marie-Loup: *Historia de la Fotografía*. Colección Cuadernos de Arte. Ed. Cátedra, Madrid, 1991.

²LO: kolodioa, alkoholean eta eterrean urtutako nitrozelusosa da.

³FREUND, Gisele. *La Fotografía como documento social*. Ed. Gustavo Gili. Barcelona, 1983. Aurreko mendeetan, erretratuak aristokraziaren eta pintoreen monopolio izan ziren. Erretratuaren demokratizazioa argazkilaritzari esker iritsi zen. Hala ere, XIX. mendean, argazkiak burgesiaren esku baino ez zeuden.

⁴TUDURI ESNAL, José María: *Gipuzkoako argazkigintzaren historiako zenbait apunte. Apuntes para una historia de la Fotografía en Gipuzkoa*. Arg. Tolosa, Fotografías (1842-1900). Arg. Kutxa. Donostia, 1992.

⁵MURGIZU, Mikel. "Argazkilaritzaren hasiera Bergaran", en *Eustaquio Aguirreolea. Pintorea eta argazkilaria. Pintor y fotógrafo*, Arg. Bergarako Udala, 2000. 1860 inguruan, Bergaran, J.M. Olazábal ari zen argazkilaritzan eta dibujao beharrean. 1891n, Eustaquio Aguirreolea pintorea hasi zen horretan, baita argazki-materiala saltzen ere. XIX. mendearen akabera aldean Ignacio Murua dugu aipagai, Valleko kontea, etxean argazki-laboratorio eder bat ipini zuena.

¹SOUGUEZ, Marie-Loup: *Historia de la Fotografía*. Colección Cuadernos de Arte. Ed. Cátedra, Madrid 1991.

²FREUND, Gisele. *La Fotografía como documento social*. Ed. Gustavo Gili. Barcelona 1983. *Los retratos fueron monopolio en los siglos precedentes de la aristocracia y los pintores. La democratización del retrato fue posible gracias a la fotografía, si bien en el siglo XIX las fotografías estaban sólo al alcance de la nueva clase burguesa.*

³TUDURI ESNAL José María.: *Gipuzkoako argazkigintzaren historiako zenbait apunte*. Apuntes para una historia de la Fotografía en Gipuzkoa en *Argazkiak*. Tolosa. *Fotografías (1842-1900)*. Ed. Kutxa. Donostia, 1992.

⁴MURGIZU, Mikel: *Argazkigintzaren hasiera Bergaran*.

"Los inicios de la Fotografía en Bergara" en *Eustaquio Aguirreolea. Pintor y argazkilaria. Pintor y fotógrafo*. Ed. Ayuntamiento de Bergara, 2000.

En la década de 1860, en Bergara, trabajaba como dibujante y fotógrafo J.M. Olazábal. En 1891, el pintor Eustaquio Aguirreolea inició su actividad profesional dedicándose además, a la venta de material fotográfico. Destacó también a finales del s.XIX Ignacio Murua, Conde del Valle, que instaló en casa un magnífico laboratorio de fotografía.

hamarkada inguruan, arte berri hori leku eta bazter guztietara heldu zen. Argazkilariak munduaren begi izaten hasi ziren, ordura arte kontakizunen eta bidaiia-liburuen bidez baino ezagutzen ez zen munduaren begi. Abenturazale eta argazkilari horiek herririk herri ibili ziren material astunak aldean zeramatzatela, paisaiak, erretratuak, artelanak eta monumentuak erretratatzeko.⁶ Zuloagatarrek eta haien jarraitzaileek, Paris, Londres eta Chicagoko Erakusketa Unibertsalek eraman zuten Eibarko damaskinatua. Laurent argazkilariak, estudioak Madrilen eta Parisen zituenak, Eusebio Zuloaga⁷ eibartarraren damaskinatu-lanen argazkiak atera zituen bere katalogoetarako.

Roman Ortuoste 1885 inguruan argazkiak ateratzen hasi zenean, tailerretako piezak eta grabatuak erretratatzeari ekin zion. Maria Angela kaleko grabatugintza tailerra, argazki-tailer ere izan zen. Sasoi hartan hasi zen argazki zaletasuna sortzen, baina bizimodua aurrera ateratzeko baino, gehiago zen senitartekoen eta lagunen erretratuak ateratzen gozatzeko modua.

Eibarren, Heraclio Echeverria⁸ medikua zen zaletu horietako bat XX. mendearen hasiera aldean. Eibarko Udal Artxihoan, bere familiari eta paisaiei ateratako erretratuen eta hark jasotako bista estereoskopikoen beirazko 240 plaka daude jatorrizko fabrikanteen kaxetan gordeta: A. Lumière & ses fils, J. Jouglé, Agfa, Gevaert, R. Guilleminot eta Baespflug & Cie.

Espanian, argazkilari afizionatu eta profesional gehienak ofizioa euren kasa ikasitakoak ziren, argazkilaritzaren teknikari⁹ buruzko eskuliburu klasikoiei esker lanbidea ikasitakoak. Argitalpen haietan, xehetasun teknikoak emateaz gain, erretratuak ateratzera joaten ziren pertsonak nola jarri behar ziren ere azaltzen zen.

Estos aventureros y profesionales recorrieron los pueblos cargados con pesados materiales realizando tomas de paisajes, retratos, obras de arte y monumentos. La familia Zuloaga y sus discípulos llevaron el damasquinado eibarrés a las exposiciones universales de París, Londres y Chicago. El fotógrafo Laurent, con estudios en Madrid y París, fotografió para sus catálogos, obras del eibarrés Eusebio Zuloaga⁵.

Román Ortuoste se inició en la fotografía con piezas industriales y grabados hacia 1885. El taller artesanal de grabado en la calle M^a Angela se convirtió también en taller de fotografía. En estos años surgieron también los primeros aficionados a este nuevo arte, que más que un medio de ganarse la vida era una forma de disfrutar realizando instantáneas de familiares y amigos.

El médico eibarrés Heraclio Echeverría⁶ también compartió esa afición a la fotografía. El Archivo Municipal de Eibar conserva una colección de negativos, con imágenes familiares, paisajes y vistas estereoscópicas en los embalajes originales de A. Lumière & ses fils, J. Jouglé, Agfa, Gevaert, R. Guilleminot Baespflug & Cie.

Los fotógrafos aficionados y profesionales en España fueron en su mayor parte autodidactas apoyados en el estudio de manuales clásicos de técnica fotográfica⁷. Publicaciones que desvelaban tanto los detalles técnicos como las normas de colocación de las personas que acudían a retratarse. También existe una prensa fotográfica en castellano financiada por las propias industrias fotográficas y por grupos burgueses aficionados. La primera revista fotográfica española se publica en 1864 con el nombre “La Fotografía”. Entre 1891 y 1893 se publica “Novedades Fotográficas” en Bilbao.

⁶I.O.: OEH: “argazki. Retrato, fotografía. Sg. DRA, esta palabra fue ideada por el P. Arriandiaga./ erretratu (V-gip ap. Elexp Berg.). Retrato, fotografía.” Eibarren, ‘erretratu’ da erabiliagoa.

⁷“Anfora burdinean damaskinatua” eta “Eusebio Zuloagak egindako bandeja baten argizarizko modeloa”, biak dira Laurent argazkilariarenak. Dunixi Murua jaunak *El Grabado en Eibar. Nuestros Grabadores* libururako utzi zituen irudiak (Ego Ibarra, Ayuntamiento de Eibar, 1996).

⁸Heraclio Echeverría (1887-1982). Laboratorioa ipini zuen bere etxeko ganbaran. Mediku otorriinoa, zinegotzi izan zen Eibarko Udalean udal bitan. 2001eko azaroaren 28an, bere ondorengok, beirazko 240 negatibo eta inpresionatzeko zegoen garaiko argazki-paperez betetako 25 kaxa donatu zituzten Eibarko Udal Artxihoari.

⁹INSERSER, Elisabeth: *La fotografía en España en el período de entreguerras*. CCG Ediciones, Centre de Recerca i Difusió de la Imatge, Girona, 2000.

⁵Laurent firmó las fotografías “Anfora en hierro damasquinado” y “Modelo en cera de una bandeja realizado por Eusebio Zuloaga” Dos imágenes facilitadas por Dunixi Murua para su publicación en *El Grabado en Eibar. Nuestros Grabadores*. Ed. Ayuntamiento de Eibar, Ego Ibarra. Eibar, 1996.

⁶Heraclio Echeverría (1887-1982) instaló un laboratorio en el desván de su casa. Fue médico otorriño y estuvo de concejal en el Ayuntamiento de Eibar durante dos legislaturas. Sus familiares donaron el 28 de noviembre de 2001, al Archivo Municipal del Ayuntamiento de Eibar, 25 cajas conteniendo 240 negativos sobre placas de vidrio y papel fotográfico de época sin impresionar.

⁷INSERSER, Elisabeth: *La fotografía en España en el período de entreguerras*. CCG Ediciones Centre de Recerca i Difusió de la Imatge. Girona, 2000.

Gaztelanieraz ere bazegoen argazki prentsa, industriek eta argazkirako zaletasuna zutenek finantzatua. Espainiako lehenengo argazki-aldizkaria 1864. urtean ateratzen zen "La Fotografía" izenez. 1891tik 1893ra bitartean, Bilbon, "Novedades Fotográficas" kaleratu zen.

XIX. mendearen akabera aldera, Roman Ortuoste kalera irtetzen zen erreportaiak egitera, gertakizun politikoak eta ospakizunak jasotzera: Eibarko Udaletxearen lehenengo harria ipintzen ateratakoa, 1895. urteko zezenketa¹⁰ Eibarko Zezen Plaza zaharrean...

Mende berria iratzarri zenean, Ortuostek, argazkilaritzan aitzindaria Eibarren, galeria eta bere lanbiderako izena estreinatu zituen: "Fotografía la Independencia". Estudio txiki bat eta laboratoriora jaso zituen etxeko ortuan, Indianokoa jauregiaren ostean; kanpoko argia tejabanatik sartzen zitzaion. Italiako "Fiamma" etxeko plaka-kamera bat erosi zuen, 18x24rainoko argazkiak ateratzen zituenena. Kanpoko argazkietarako, Ernemann Klap Tropikal kamera alemana zuen. Egurrezko lurrean alfombra handi bat ipini zuen, tertziopelozko gortinak, zurezko

1915 inguruan. Victoria Ortuosteren erretratua, bere aitak, Roman Ortuostek ateratakoa. Eibarko lehen emakume argazkilaria izan zen. Kartulinarak galeriaren izena darama, "Fotografía la Independencia". 1915 aprox. Victoria Ortuoste, primera fotógrafa eibarresa, en un retrato realizado por su padre Román Ortuoste. La cartulina lleva el nombre de la Galería "Fotografía la Independencia".

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa. Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.



¹⁰Argazki-kopia batzuk ez ziren positibatu ateratu (reprint) ziren urtean; hurrengo argazkilaritza-belaunaldi batzuk izan ziren argitaratzeko eta merkaturatzeko positibatu zituztenak, antzinako paperekin (batzuetan, albumina izaten zen) zuten tonua eta ehundura galduz baina irudia berreskuratuz. Beste batzuen artean horixe da Udaletxearen lehen harriarenarekin eta Untzaga Plazako korridorearenarekin gertatu dena, 1926-1936 artean positibatu baitziren. Ortuoste y Castrillo izenpea daramate biek.

A finales del siglo XIX Román Ortuoste comenzó a realizar reportajes en exteriores obteniendo instantáneas de acontecimientos políticos y festivos: corrida de toros⁹ en 1895, primera piedra del Ayuntamiento de Eibar en 1899...

Al despertar el siglo XX, Ortuoste, pionero de la fotografía en Eibar, estrenó galería y nombre artístico: "Fotografía la Independencia". Construyó un pequeño estudio con luz natural filtrada por tejavanas y un laboratorio en la huerta familiar, justo detrás del Palacio de Indianokoa. Compró una cámara de placas de la marca italiana Fiamma para tomar placas hasta 18x24 cm y una Ernemann Klap Tropikal, de fabricación alemana, para los reportajes en exteriores. Colocó en su estudio grandes alfombras en el suelo de madera, cortinas de terciopelo, sillones, fondos pintados con paisajes, columnas y peldaños. Hacia 1920 utilizó "Luz y Arte" como nuevo nombre artístico en las cartulinas. Sin embargo no se especializó sólo en retratos y poses preparadas, como hicieron muchos galeristas en las capitales⁹.

Antes de la entrada masiva de la fotografía en la prensa gráfica los fotógrafos buscaron comercializar



Fiamma kamera. Firenzen egindakoa. 18x24 zmkko neurrirainoko beirazko plaken negatiboetarako erabili zen. Cámara de estudio Fiamma, realizada en Florencia (Italia). Se utilizó con negativos sobre placa de vidrio de formatos hasta 18x24 cm.

Eibarko Udal Artxiboa. Egilea: Jose Valderrey. Archivo Municipal de Eibar. Autor: José Valderrey.



1924 inguruan. Feliciano Castrillo eta Victoria Ortuoste senar-emazteak Lucas semearekin. Roman Ortuosteren "Luz y Arte" estudioan ateratakoa. 1924 aprox. Retrato del matrimonio Feliciano Castrillo y Victoria Ortuoste con su hijo Lucas, realizado en el Estudio "Luz y Arte" de Román Ortuoste.

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa. Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.

⁹Algunas copias fotográficas fueron positivadas en años diferentes a los de la toma (reprint), por las siguientes generaciones de fotógrafos para su publicación y comercialización, perdiendo el tono y textura de los papeles de época (en ocasiones albúminas) pero recuperando la imagen. Es el caso, entre otras, de las fotografías de la primera piedra del Ayuntamiento y de la corrida de toros en la plaza de Unzaga, positivadas entre 1926-1936, que tienen la firma Ortuoste y Castrillo. "LÓPEZ MONDEJAR, Publico: 150 años de Fotografía en España. Lundwerg Editores, Madrid, 1999.

besaulkiak beso ikusgarriekin, horma pintatuak, paisai, zutabe eta harmailekin. 1920. urte inguruan "Luz y Arte" izen berria erabiltzen hasi zen kartulinetan. Hala ere, ez zituen bakarrik erretratuak eta ondo prestatutako poseak atera hiriburuetako galerista¹¹ askok egiten zuen moduan.

Argazkiaren presentzia prentsa grafikoan ugaltzen hasi baino lehen, argazkilariek, beraien lanen kopia edo aldaki asko egin eta horiek merkaturatzen hasteko modua bilatu zuten; 1900 eta 1925 artean, paisaiak, kirolak eta erretratuak zeuzkaten postalek hedapen handia izan zuten. Postal gehienak, argazki-kopiaren beraren emultsioa erabilia, fototipian inprimatutakoak izaten ziren. Anilinekin, tintekin edo akuarelekin eskuz kolorea emandako bildumak ere saldu ziren. Ortuostek postalak Eibarren argitaratu zituen, Maria Angela kalean zegoen Victor Fernández y Diego inprimategian. Bere bilduman badaude Eibarko beste postal batzuk ere, V. Novillo eta Ojanguren argazkilarienak, inprimategi horretan bertan kaleratutakoak.

Hogeigarren hamarkadak aldaketa tekniko asko ekarri zituen; kameretan berrikuntzak egin ziren,

la reproducción múltiple de sus imágenes. Muy populares entre 1900 y 1925, eran las postales de paisajes, deportes y retratos impresas mayoritariamente en fototipia, utilizando la emulsión de la propia copia fotográfica. También se vendieron series coloreadas a mano con anilinas, tintas y acuarelas. En Eibar, Ortuoste editó postales en la imprenta de Victor Fernández y Diego, ubicada en la calle M^a Angela. También existen en su colección otras postales de Eibar tomadas por los fotógrafos V. Novillo y Ojanguren, realizadas por el mismo impresor.

Los años veinte aportaron cambios técnicos, innovaciones en cámaras y emulsiones más rápidas. En 1924 se comercializó la cámara Ermanox, con un objetivo muy luminoso f/2. El fotoperiodismo se olvidó de las grandes y pesadas cámaras y se reconoció como profesión. Las revistas y periódicos ilustrados se multiplicaron demandando cada vez más fotografías¹⁰. Los fotoperiodistas tuvieron su momento álgido en la Guerra Civil con reportajes tan destacados como los firmados por el fundador de la Agencia Magnum, Robert Capa, para la revista Life. En Eibar, Ortuoste, publicó fotografías en la Voz de Guipúzcoa, entre otras, la visita a la Escuela



Errexil 1925. Eibarko Klub Deportiboko mendizaleak, "autobusito"arekin. Argazkiak, Roman Ortuosteren zigilua du erliebean. 1925, Regil. Excursión de montañeros del Club Deportivo Eibar con el "autobusito". La copia tiene el sello en relieve del fotógrafo Román Ortuoste.

Eibarko Klub Deportiboaren argazki bilduma. Eibarko Udal Artxiboa. Colección Fotográfica del CDE. Archivo Municipal de Eibar.



¹¹LÓPEZ MONDEJAR, Publio: *150 años de Fotografía en España*. Lundweg Editores, Madrid, 1999.

¹⁰BILBAO FULLAONDO, Josu. *Tesis doctoral inédita: La Fotografía en la Prensa Diaria Vizcaína*. Bilbao, 1987. Incluye estadísticas de publicaciones de fotografías en prensa y una biografía del eibarrés Indalecio Ojanguren "fotógrafo águila". Abrió su estudio en 1914 y con base en Eibar llegó a colaborar como "reporter gráfico independiente" en una veintena de publicaciones del País Vasco, Madrid, Barcelona y hasta Argentina.

emultsioak azkarragoak ziren. 1924. urtean merkaturatu zen Ermanox kamera, f/2 objektibo askoz argitsuagoarekin. Argazki-kazetaritzak bazter batean utzi zituen lehengo kamera handi astunak; benetako lanbidetzat¹² hartzen hasi zen. Ugaltzen joan ziren argazkiz hornitutako egunkariak eta aldizkariak; eskabidea handitzen zihoan. Argazki-kazetaritzak bere gailurra Gerra Zibilean izan zuen, Magnum agentziaren sortzaileak, Robert Capak Life aldizkarirako egin zituen erreportai ikusgarri haiekin. Eibarren, Ortuostek, La Voz de Guipúzcoa egunkarirako egin zituen argazkiak; ordukoa da 1914. urtean Alfonso XIII erregeak eta Fermín Calbetón Fomento ministroak Armeria Eskolara egin zuten bisitarena. Errepublikara garaietan, Eibarrera izen eta ospe handiko pertsonaiak etortzen zirenean, normala zen "Ortuoste y Castrillo Reporter Gráfico" firma ikustea.

Eibarrera, sasoi hartan, hainbat argazkilari etorri ziren. Marin donostiarrak, Franco eta Mola, gerra irabazita, su eta gar artean zegoen herrira sartzen atera zituen. Indalezio Ojanguren eibartar argazkilari eta mendizaleak gerra ostean, atera zituen argazkietan birrindutako etxeak ikusten dira (hark egindako argazki asko dago Castrillo Ortuoste Fondoan). Santa María del Villar markesa¹³ "Regiones Devastadas" Planaren argazkiak ateratzera behartu zuten eta Eibarko herriaren

de Armería en 1914 del Rey Alfonso XIII y del Ministro de Fomento, Fermín Calbetón. En la colección de fotografías realizadas durante la República es habitual ver la firma "Ortuoste y Castrillo Reporter Gráfico".

Varios reporteros gráficos pasaron entonces por Eibar. El donostiarra Martín registró la entrada victoriosa de Franco y Mola y recogió una ciudad fantasmagórica envuelta en llamas. Al finalizar la guerra, las imágenes tomadas por el fotógrafo y montañero eibarrés, Indalezio Ojanguren, (algunas reproducidas en el fondo Castrillo Ortuoste) muestran los esqueletos de las viviendas. El Marqués de Santa María del Villar¹¹, obligado a realizar las fotografías del Plan de Regiones Devastadas, dejó varios reportajes de calidad sobre el Eibar urbano, el de las ruinas y la reconstrucción, reportajes que se conservan en el Fondo Municipal de Obras y Urbanismo.

Durante la posguerra de la autarquía y racionamiento apenas hay materiales. La fábrica Valca suministró las películas ortocromáticas de 13x18 cm. para retratos de estudio hasta mediados de los años cincuenta, que compraban en Foto Espiga de Bilbao. La creación de una Prensa del movimiento sometida a una férrea censura y la continua demanda de mano de obra que la pujante

Eibar, 1914 inguruan. Sasoi hartako argazkilari asko dago erretratuan, ekitaldi politiko batean. Lehenengo iladan, Indalezio Ojanguren eibartarra, esku bat aurpegian eta bestean kamera duela. Eibar, 1914 aprox. Acto político cubierto por muchos de los reporteros gráficos de la época. En la primera fila de fotógrafos está el eibarrés Indalezio Ojanguren, con una mano en la cara y la otra sujetando la cámara.

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa. Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.



1920 inguruan. Victoria Ortuostek egindako muntaia. Bera zen laboratorian negatiboak errebelatzen zituena eta aldakiak ateratzen zituena. Victoria ezagutu zutenek gogoan dituzte haren hatzamar horiak, lanak horitutakoak. 1920 aprox. Fotomontaje de Victoria Ortuoste, que fue la encargada de revelar negativos y hacer copias en el laboratorio. Sus familiares y amigos la recuerdan con los dedos amarillos.

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa. Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.



¹¹LATORRE, Jorge. Tesis doctoral: El marqués de Santa María del Villar: un fotógrafo turista. Ed. Universidad de Navarra, 1999.

¹²BILBAO FULLAONDO, Josu. Oraindik argitaratu eman bariko doktore-tesia: *La Fotografía en la Prensa Diaria Vizcaína*. Bilbo, 1987. Egunkarietan argitaratu emandako argazkien estatistikak damaizkigu eta Indalezio Ojanguren eibartar argazkilariaren biografia. 1914. urtean zabaldu zuen estudioa eta Euskal Herri, Madril,artzelona eta Argentinako hogeiren bat egunkari eta aldizkarietan argitaratu ziren bere lanak "reporter gráfico independiente" legez beharra eginez.

¹³JORGE LATORREREN doktore-tesia. *El marqués de Santa María del Villar: un fotógrafo turista*. Universidad de Navarra, 1999.

hondamendia eta herria berriro nola jaso zen ederto asko erretratatu zuen. Argazki horiek, Eibarko Udalaren Obra eta Hirigintza Sailaren argazki-bilduman daude gordeta.

Autarkiaren eta errazionamenduaren gerra oste hartan apenas zegoen ezer. Valca fabrikak egiten zituen estudioko argazkiak ateratzeko 13x18ko pelikula ortokromatikoak, eta Bilboko Foto Espigakoek hari erosten zioten. Zentsuraren aldetik urte gogorak izan ziren haiek. Industria biziberrituta, eskulanaren eskaria handia zen: Castrillo familia, orduko egunkarietarako "argazki ofizialak" egitera baino gehiago dedikatu zen tailerretako argazkiak, nortasun-agirietakoak eta herriko familietakoak ateratzera. Betiko kamera zaharrekin segitzen zuten lanean, eta eliza barruetan beharra egiteko orduan, argitasuna magnesioarekin eta potasarekin lortzeko sistema zahar eta arriskutsu hura erabiltzen zuten. Castrillo Ortuoste Fondoak gerra osteko 10.000 plaka inguru ditu: Eibarko industriaren gorakada, orduko despedidak eta ezkontzak, sasoi hartan debeku osoa zuten maiatzaren lehenaren ospakizunak -estudioan bertan isilpean ateratakoak- "klandestinitatean" egindako Aratusteetako erretratuak.

Feliciano Castrillo maisua zen negatiboei ukituak edo erretokeak egiten, eta hura hil ondoren, lan

industria necesitaba, llevó a la familia Castrillo más a la foto industrial, carnet de identidad y álbum familiar, que a la fotografía oficial de los medios. Continuaron trabajando con las cámaras antiguas familiares, utilizando todavía, en el interior de las iglesias, el viejo y peligroso sistema de iluminación con magnesio y potasa. La posguerra está contenida en el Fondo Castrillo Ortuoste en una serie de 10.000 placas de vidrio, que recogen el resurgir de la industria eibarresa, el reportaje social con despedidas y bodas, las celebraciones –entonces perseguidas- del Día del Trabajo (1 de mayo) en el propio estudio, y los retratos “clandestinos” de carnaval durante unas fiestas también prohibidas.

Feliciano Castrillo dominó el arte del retoque de negativos. A su muerte, comenzaron a encargarse fuera esta delicada operación. Su hijo, “Felitxu” Castrillo Ortuoste, aprendió a dibujar en Eibar y Madrid. Completó con Rubio en Bilbao su formación de retocador, aprendiendo a usar los lápices grasos, máscaras adhesivas y barnices. Se dedicó entonces a lograr una buena imagen de la población eibarresa eliminando ojeras, granos y barbas. También positivó piezas industriales para catálogos eliminando con tintes y opacadores los fondos del propio taller.

Castrillo adquiere manuales de estudio, laboratorio y retoque, entre los que destaca, el Manual de



Eibar, 1952 (Luciano Ortuoste, koadrodun alkandararekin, kamera ondoan, lanean eta bazkaltzen. “Máquinas de Coser Alfa” kooperatibaren beharginak bere ondoan: Agiriano (txoferra), Felix Aldazabal (erosketa zuzendaria), Jose Luis Arriola (merkantzia banatzailea) eta Amaia bere arreba (bordatzailea). **Eibar, 1952. Almuerzo de trabajo del fotógrafo Luciano Ortuoste, al lado de la cámara con camisa de cuadros.** Le acompañan los empleados de la cooperativa Máquinas de Coser Alfa, Agiriano (chofer), Felix Aldazabal (jefe de compras), José Luis Arriola (jefe de expediciones) y su hermana Amaia Arriola (maestra bordadora).

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa
Archivo Municipal de Eibar.
Fondo Castrillo Ortuoste.

Eibar, 1931. Errepublikaren aldeko agrupazioak Astelena Frontoian. Argazkiak “Ortuoste y Castrillo Reporter Gráfico” zigilua darama. **Eibar, 1931. Encuentro de Agrupaciones Republicanas en el Frontón Astelena. La imagen lleva el sello “Ortuoste y Castrillo Reporter Gráfico”.**

Eibarko Udal Artxiboa. Castrillo Ortuoste Fondoa.
Archivo Municipal de Eibar. Fondo Castrillo Ortuoste.



hori kanpora bidaltzen hasi ziren. Bere semeak, "Felitxu"k, aitaren izen berbera zuenak, dibujatzen ikasi zuen Eibarren eta Madrilen. Bilbon Rubiorenkin ibili zen erretokeak egiten ikasten; arkatx bigunak, maskara itsasgarriak eta bernizak erabiltzen ikasi zuen. Eibarko jendearen itxura dotoretu egin zuen betazpiak, granoak eta bizarrak ezkutatuta. Katalogoetarako pieza industrialak ere positibatu zituen, tailerretako fondoak tintekin eta opakatzailerekin kenduz.

Ikasteko gogoia zuen eta estudiorako, laboratoriorako eta erretokeetarako eskuliburu asko zituen; 1953an argitaratutako Kodaken esku-liburua da aipagarri. Argazki-teknikaren berri ematen zuten aldizkarien harpidetzak ez zitzaizkion arrotz, "Arte Fotográfico"rena bezala, baita sasoi hartako argazkilaritzaren mitorik handien abangoardiako lanak ezagutzeko zine eta moda aldizkariak ere: Photo Magazine, Popular Photography eta Charm Photographie.

Hala ere, estudioko lana errutina hutsa zen eta bezeroek iluminazio klasikoa zuten gustuko. Erretratuak egiten espezializatu zen, bere gurasoek erabilitako material berberekin eta aitonaaren Fiamma kamera plakadunarekin. Estudioko ekipoa eta laboratorikoa lokalik lokal ibili da, material berberak eta iluminaziorako eskema berberak erabiliz.

1960. urte inguruan berri egin zuen estudioko eta laboratorikoko ekipoa osoa. Espainian egindakoak ziren, fundizioko materialekin egindakoak, industrietan erabiltzen ziren makinak pintatzen ziren moduan pintatutakoak. Anaca plaka-kamera erosi zuen, flashak eta fondoaren proiektagailuak, formatu handietarako handigailua. Neurri ertaineko kamera eta pieza lagungarriak ere erosi zituen, baita karrete normaletarako beste kamera bat ere; makina panoramikoak ere hartu zuen, enkoadre eta kamera-mugimendu bitxiak bilatzearen; 8 mmko zine-kamera ere ordukoa da. Horrekin grabatu zituen futbol partidu batzuk eta Urbian "Peña Usua"ko adiskideekin egindako lagunarteko film laburrak.

Hornitzaileak Donostian zituen urte haietan; Foto Bersan eta Willy Koch dira produktu kimikoak, plakak eta Kodak, Agfa, Negtor eta Valca etxeetako

Kodak, editado en 1953. Está suscrito a publicaciones técnicas como "Arte Fotográfico" y también a revistas de cine y moda que le dan a conocer el trabajo de las vanguardias fotográficas con los grandes mitos de la época: Photo Magazine, Popular Photography y Charm Photographie.

Sin embargo, su trabajo en estudio es rutinario y los clientes solamente piden iluminaciones clásicas. Se especializó en retratos, utilizando los mismos accesorios de estudio utilizados por sus padres y la cámara de placas Fiamma usada por su abuelo. El equipo de estudio y laboratorio ha ido pasando de local en local, manteniendo los mismos materiales y esquemas de iluminación.

A comienzos de los sesenta Feliciano renovó el equipo de estudio y laboratorio. Eran de fabricación española, realizados con materiales de fundición y pintados igual que la maquinaria usada en la industria. Adquirió una cámara de placas Anaca, flashes y proyectores de fondos, una ampliadora para grandes formatos. También compró una cámara y accesorios de formato medio y otra de paso universal, incluso una máquina panorámica con la que buscó encuadres y movimientos de cámara novedosos y una cámara de cine de 8 mm, con los que grabó algunos partidos de fútbol y creó algunos cortometrajes en Urbia con sus amigos de la "Peña Usua".

Sus proveedores están ahora en San Sebastián. Foto Bersan y Willy Koch le suministran productos químicos y placas, y papel de las marcas Kodak, Agfa, Negtor y Valca. También acudió a las reuniones de la Asociación de Fotógrafos en la capital, pero los problemas y tarifas en Eibar eran diferentes.

La competencia del retrato en Eibar es cada vez más fuerte, pero los años sesenta dieron trabajo para todos. En la villa armera realizaron fotografías de estudio y reportajes Garay, Jauja, Buenacasa, Plazaola con Aguirresarobe, Fernández y Romarate, Lacuesta, Varela, Yagüez, Diez, Cortijo y Ares. En esta década también estaban en la villa armera el fotógrafo-minutero Servando Juez y otros fotógrafos no declarados que completaban sus ingresos mensuales haciendo reportajes sociales en las cercanías de la Parroquia.

papera ekartzen diotenak. Argazkilarien Elkarteko bileretara ere joaten zen hara, baina argazkilaritzaren inguruko kontuak eta tarifak beste modu batekoak ziren Eibarren.

Eibarren erretratista gehiago zegoen, lehia handia zen, baina 60. hamarkada hartan denek ziurtatua zuten beharra. Garay, Buenacasa eta Jauja, Plazaola -Romarate, Aguirresarobe eta Fernándezekin-, Lacuesta, Cortijo eta Ares ziren estudioko argazkigintza eta erreportaiak egiten zituztenak Eibarren. Servando Juez argazkilari-minuteroa¹⁴ ere herrian zebilen sasoi hartan, eta argazkilari afizionatu batzuk, beste beharren bat egiten irabazten zuten hileko soldata urria osatzeko argazkiak ateratzen ibiltzen zirenak, han egoten ziren, beti gertu, Parrokia inguruan.

1962. urtean, Indalezio Ojangurenek San Juan kale hasieran zuen lokalak su hartu zuen eta bere estudioa eta laborioria kiskalduta geratu ziren. Gipuzkoako egunkariak artxibo haren garrantzia nolakoa zen islatu zuten; handik lau urtera Jose de Arteche idazleak Gipuzkoako Foru Aldundira beirazko zazpi mila plakatik gora eraman zituen.

En 1962, un incendio devoró el estudio y laboratorio de Indalecio Ojanguren, ubicado en la entrada de la calle San Juan. La prensa guipuzcoana, advirtió de la importancia del archivo y cuatro años más tarde el escritor José de Arteche trasladó a Diputación de Gipuzkoa más de siete mil placas de vidrio.

También existían muchos aficionados a la fotografía en Eibar que enviaban a revelar al laboratorio de Castrillo sus copias. Entre ellos, Eugenio Ortuoste, César Huertas, Eli Ojanguren (hijo de Indalecio) y Juan San Martín.

